

Zk-7430

AGINDUA, 2002ko abenduaren 30ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak, bere 4. artikuluan birgaitzeko jarduketa babestuak zehazten ditu.

Abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuak, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoak, 42. artikuluan ezartzen du jarduketa hori Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez arautuko dela.

Horri jarraiki eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Ingurugiro Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren 4. artikulua eta babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren lehen azken xedapenak xedatutakoaren arabera, honakoa

XEDATU DUT:**1. artikulua.**– Xedea.

Agindu honen xedea da babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 42.1.d) artikulua garatzea. Artikulu horrek ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko babesgarriak diren jarduerak arautzen ditu.

2. artikulua.– Baldintza orokorrak

1.– Etxebizitza izatea erabilera nagusitzat duten eraikuntza-unitateen inguruko birgaitzeko jarduketak ondorengo baldintzak egiaztatzen direnean bakarrik joko dira jarduketa babestutzat:

a) Birgaitu beharreko eraikinek 10 urte baino gehiago izatea. Horri dagokionez salbuespen izango dira:

– etxebizitzak mugikortasun urri iraunkorra duten minusbaliatuek erabiltzeko egokitzea.

– eraikinean eta etxebizitzetan gas naturala (edo gas naturalik ez duten udalerrietan hori bezain garbia den energia alternatibo primarioa) instalatzea.

– obrak beharrezkoak izatea instalazioak indarrean dagoen araudi tekniko berriari egokitzeko.

b) Hirigintzara moldatuta ez dauden eraikuntza-unitateen edo egiturari edo eraikuntzari dagokionez moldatuta ez dauden eraikinen kasuan, ez dira babestuko aipatutako baldintzak lortzeko beharrezko lanak barne hartzen ez dituzten obrak, ondoren adierazitako kasuetan izan ezik:

Nº-7430

ORDEN de 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras para rehabilitación de vivienda.

El Decreto 317/2002 de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado establece en su artículo 4 las actuaciones protegidas de rehabilitación

El artículo 42 del Decreto 315/2002 de 30 de diciembre, sobre régimen jurídico de las viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo establece que la regulación reglamentaria de esta actuación se desarrollará mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 40/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, y en la disposición final primera del citado Decreto 315/2002, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

DISPONGO:**Artículo 1.**– Objeto

Es objeto de la presente Orden el desarrollo del artículo 42 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, en su apartado 1.d) referente a actuaciones protegibles de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.

Artículo 2.– Requisitos generales

1. Las actuaciones de rehabilitación que se refieran a unidades edificatorias que tengan como uso principal el de vivienda sólo tendrán la consideración de actuaciones protegidas cuando se verifiquen las siguientes condiciones:

a) Que los edificios a rehabilitar tengan una antigüedad superior a 10 años, excepto:

– cuando se trate de adaptación de las viviendas para uso de personas minusválidas con movilidad reducida permanente.

– cuando se trate de la instalación de gas natural (o en aquellos municipios donde no exista gas natural de instalación de energía alternativa primaria igualmente limpia) en el edificio y en las viviendas.

– cuando las obras sean necesarias para adaptar las instalaciones a la normativa técnica aplicable vigente.

b) En las unidades edificatorias que no se encuentren adecuadas urbanísticamente o en los edificios que no se encuentren adecuados estructural o constructivamente, no se protegerá la realización de obras que no incluyan las necesarias para la consecución de las citadas condiciones, excepto en los siguientes supuestos:

– lurzoruaren legerian aurreikusitakoaren arabera obrak egiteko agindu bat eman denean,

– etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak moldatzeko presako obrak egitea beharrezkoa denean.

c) Hirigintzara moldatzea eta eraikinen egitura eta eraikuntza moldatzea helburu duten birgaitzeko jarduketetan eta etxebizitzek bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztenean, eraikinak bizitzeko moldatzea bermatuko duten antolamendu espaziala eta ezaugarri konstruktiboa izatea eskatuko da.

Edozein kasutan, aipatutako bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzaren kokaleku diren eraikinak hirigintzara moldatzeko eta/edo eraikinen egitura eta eraikuntza moldatzeko finantzazioa bi urteko epean aipatutako baldintza horiek lortzeko beharrezko obrei ekitearen menpekoea izango da.

2.– Aurreko zenbakian eskatutako baldintzez gain, Birgaitze Isolatuko jarduketara babestuetan honakoak ere eskatuko dira:

a) Birgaitu beharreko eraikinak hirigintzara moldatutakoak izatea eta aurreikusitako erabilera izatea edo udal-baimena lortzea eragotziko duen mugapenik ez izatea, ondorengo kasuetan izan ezik:

– indarrean dagoen lurzoruaren legerian aurreikusitakoaren arabera obrak egiteko agindu bat eman denean,

– etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak moldatzeko presako obrak egitea beharrezkoa denean.

b) Eraikina ez egotea aurri-egoeran edo partzialki erautsia edo barnealdea hustuta ez izatea, edo jarduketek fatxadak eraistea edo guztiz hustea barne hartzea.

Dena dela, ondoren zehazten diren etxebizitzaren eraikinetan husteko obrak barne hartzen dituzten birgaitzeko jarduketaren titularrek arau honetan ezarritako finantza-neurriak eskuratu ahal izango dituzte ondorengo kasuetan:

– eraikuntza tradizionalaren tipologiari jarraitzen zaizkien landa-inguruko eraikinen kasuan.

– nekazaritza- edo landa-izaera izan duten edo gremioei lotutako herri-arkitekturako tipologia duten eraikuntza tradizionalako eraikinen kasuan.

c) Eraikuntza berriko obren bidez bizitzeko egoki den etxebizitzaren espazioa zabaltzeko esku-hartzeak. Zabaltzeko esku-hartze horiek nahitaezko udal-baimena izan beharko dute eta horiek egin ostean lortuko diren etxebizitzek bizigarritasun-baldintzak bete behar dituzte.

– cuando exista una orden de ejecución de obras en los términos previstos en la legislación del suelo.

– siempre que sea preciso efectuar obras urgentes para la adecuación de las condiciones de habitabilidad de la vivienda.

c) En aquellas actuaciones de rehabilitación que tengan por objeto la adecuación urbanística, o la adecuación estructural y constructiva de los edificios, y las viviendas no reúnan las condiciones de habitabilidad, se exigirá que el edificio posea una organización espacial y unas características constructivas que garanticen la posibilidad de alcanzar dicha adecuación de habitabilidad.

En todo caso la financiación para la adecuación urbanística y/o para la adecuación estructural y constructiva de los edificios donde se ubiquen viviendas que no reúnan las condiciones de habitabilidad citadas, estará condicionada a que en el plazo de dos años se acometan las obras necesarias para alcanzar las citadas condiciones.

2. Además de los requisitos exigidos en el número anterior para las actuaciones protegidas en Rehabilitación Aislada se exigirá:

a) Que los edificios a rehabilitar se encuentren adecuados urbanísticamente, y sin limitaciones que impidan el uso previsto o la obtención de licencia municipal, excepto en los siguientes supuestos:

– cuando exista una orden de ejecución de obras en los términos previstos en la legislación del suelo que se encuentre en vigor.

– siempre que sea preciso efectuar obras urgentes para la adecuación de las condiciones de habitabilidad de la vivienda.

b) Que el edificio no se encuentre en estado de ruina, demolido parcialmente o vaciado en su interior, o que las actuaciones incluyan la demolición de fachadas o su vaciado total.

No obstante, los titulares de actuaciones de rehabilitación que conlleven obras de vaciado en los edificios de viviendas que a continuación se detallan, podrán acceder a las medidas financieras establecidas en esta norma en los siguientes casos:

– edificios sitos en el medio rural cuya tipología constructiva responda a la edificación tradicional.

– edificios de construcción tradicional, cuyo origen haya sido de carácter agrícola o rural o que correspondan a tipologías arquitectónicas populares de carácter gremial.

c) Intervenciones de ampliación del espacio habitable de la vivienda mediante obras de nueva construcción. Dichas intervenciones de ampliación deberán contar con la preceptiva licencia municipal, y las viviendas resultantes tras la realización de las mismas habrán de cumplir con las condiciones de habitabilidad.

Esku-hartze horiek egin ondoren gehienez ere 90 m.2-ko guztizko azalera erabilgarria edo eraiki ziren unean etxebizitza horiek izan zuten babes ofizialeko erregimenak ezarritako gehienezko azalera izango du etxebizitzek, honako kasuetan izan ezik:

– eraikuntza tradizionalaren tipologiari jarraitzen zaizkien landa-inguruneko eraikinen kasuan.

– nekazaritza- edo landa-izaera izan duten edo gremioei lotutako herri-arkitekturako tipologia duten eraikuntza tradizionalako eraikinen kasuan.

Terrazak ixteko jarduketak ez dira babes daitezkeen birgaitzeko jarduketatzat joko.

3.– Halaber, birgaitzeko jarduketa babestuen multzoak jarduketa bakoitzari dagokionez agindu honek xedatzen duena eta, hala badagokio, Birgaitze Plan Berezia eta indarrean dagoen legeria aplikagarrian erabakitakoa bete beharko du. Kasu guztietan beharrezkoa izango da obretarako dagokion udal-baimena lortzea.

3. artikulua.– Birgaitzeko jarduketa babestuen titularrak

1.– Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren 8. artikuluan adierazitako pertsonak egin ditzakete birgaitzeko jarduketa babestuak.

2.– Behin administrazio-ebazpena eman ondoren, birgaikuntzaren titularrez aldatuz gero, lehenengo ezeztu beharko da aurreko titularrari onartutako finantzazioa.

3.– Higiezin baten elementu komunak birgaitzen direnean, Jabekideen Komunitateari zuzenean emango zaio babes daitekeen aurrekontuaren %5eko dirulaguntza, baldin eta Agindu honen 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera 1, 2 eta 3 motetako obrak badira. Dirulaguntza %10ekoa izango da baldin eta aurreko kasuak badira eta birgaitze integrala bada.

Jabekideen Komunitateari zuzenean emandako laguntzak bateragarriak izango dira jabekide edo titular bakoitzari beren diru-sarreraren arabera eta Agindu honen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera jaso ditzaketenekin.

4.– Diru-sarrerak:

Birgaitzeko jarduketa babesgarrien titularrei banakako laguntzak emateko, elementu komunak birgaitzean (aurreko puntuaren bigarren paragrafoan ezarritakoa) zein elementu pribatiboen birgaitzean, titularron diru-sarrerak hartuko dira kontuan, ondoko irizpideei jarraiki:

a) Oro har, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002

Se exigirá que den como resultado una superficie útil total de la vivienda que no exceda de 90 m², o de la superficie máxima establecida en el régimen de protección oficial al que se acogieron las viviendas en el momento de su construcción, a excepción de:

– edificios sitios en el medio rural cuya tipología constructiva responda la edificación tradicional.

– edificios de construcción tradicional, cuyo origen haya sido de carácter agrícola o rural o que correspondan a tipologías arquitectónicas populares de carácter gremial.

El cerramiento de terrazas no se considerará actuación protegible de rehabilitación.

3. Asimismo, el conjunto de las actuaciones protegidas de rehabilitación deberá verificar las especificaciones que para cada actuación recoja la presente norma y lo estipulado, en su caso, en el Plan Especial de Rehabilitación y en la normativa aplicable vigente. En todos los casos, deberán contar con la correspondiente licencia municipal de obras.

Artículo 3.– Titulares de las actuaciones protegidas de rehabilitación.

1.– Las actuaciones protegidas de rehabilitación podrán ser realizadas por las personas señaladas en el artículo 8 del Decreto 317/2002 de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.

2.– La modificación del titular de la rehabilitación, una vez dictada resolución administrativa, se efectuará previa cancelación de la financiación reconocida al anterior titular.

3.– En los supuestos de rehabilitación de elementos comunes de un inmueble se concederá directamente a la Comunidad de Propietarios una subvención del 5% del presupuesto protegible, siempre que se trate de obras de los tipos 1, 2 y 3 en los términos del artículo 9.2 de esta Orden. La subvención se elevará al 10% cuando se trate de rehabilitación integrada en los mismos supuestos.

Las ayudas directas a la Comunidad de Propietarios serán compatibles con las que pudieran corresponder a cada uno de los propietarios o titulares en los términos del artículo 9 del Decreto 315/2002 de 30 de diciembre, en función de sus ingresos de la presente Orden.

4. Ingresos

Para la concesión de ayudas a los titulares individuales de actuaciones protegidas de rehabilitación, tanto en el supuesto de rehabilitación de elementos comunes, previsto en el segundo párrafo del punto anterior, como en el de rehabilitación de elementos privativos, se tendrán en cuenta sus ingresos, atendiendo a los siguientes criterios:

a) Con carácter general se aplicarán los mismos criterios que los establecidos en los artículos 18 y siguientes del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre

Dekretuaren 18. eta ondorengo artikuluek ezarritako irizpideei jarraiki.

b) Birgaitu beharreko etxebizitza edo eraikinak hainbat jabe dituenen jabekide guztien diru-sarrera haztueti jarraiki. Horiek birgaitzeko jarduketak babestuen titulartzat joko dira.

Hala ere, dagokion lurralde-ordezkaritzak alderdi hori aintzat ez hartzea erabaki dezake, hori justifikatzen duten egoera bereziak sortzen direnean. Hori aintzat ez hartzea interesdunek eskatu beharko dute eta birgaitzearen titularra zein izango den egiaztatu beharko dute. Hori egitea ahalbidetzen duten egoeren artean ditugu etxebizitzak jabekideetako batek bakarrik erabiltzea, jabetza-kuoten tamaina edo hauteman daitekeen antzeko beste kasuren bat.

Edonola ere, higiezinaren titularrak irabazi asmorik gabeko erakundeak edo administrazio publikoak direnean, ez da eskatuko diru-sarrerak egiaztatzeko.

4. artikulua.— Jarduketan eremua

1.— Birgaitzeko jarduketak babestu baten titularrek agindu honetan ezarritako finantza-neurriak lortu ahal izango dituzte esku-hartzeak etxebizitza izatea xede nagusi duen eraikin batean egiten dituztenean. Gisa horretako eraikintzat joko dira birgaitzeko jarduketak egin ostean azalera erabilgarriaren bi heren (beheko solairua kontuan hartu gabe) etxebizitza bezala erabiltzera bideratuko dituztenak. Halaber, horrelakotzat joko dira aipatutako eraikinetan kokatutako etxebizitzetan egingako birgaitzeko esku-hartzeak.

Baldintza hori ez da eskatuko birgaitzeko jarduketak hirigintza, egitura eta eraikuntzari dagokienez moldatutako eraikinetako etxebizitzaren elementu pribatiboetako esku-hartzeak direnean.

Salbuespen gisa, nagusiki etxebizitza izatera bideratutako eraikinetan birgaitzeko jarduketak egiteko finantzazioa lortu ahal izango dute nagusiki etxebizitza izatera bideratutakoak ez diren eraikinetako elementu komunak birgaitzeko jarduketan titularrek. Finantzazio hori eta berorren irismena Birgaitzeko Hirigintza Sozietatearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko nahitaezko berariazko hitzarmen baten bidez finkatuko dira. Birgaitze Isolatuko jarduketetan hitzarmena birgaitzearen titularrek eta Eusko Jaurlaritzak sinatu beharko dute. Horretan udal interesdunak ere hartu ahal izango du parte.

2.— Finantzazio kualifikatua urbanizazioa moldatzea eta eraiki gabeko lurren, xede nagusi gisa etxebizitza izatea duen eraikuntza duen eraikuntza-unitatea osatzen dutenen, akaberara hedatuko da.

3.— Finantzazioa trasteleku eta garajetara ere hedatuko da, betiere horiek jarduketaren helburu diren etxebizitzetara lotutakoak direnean. Lotuta daudela joko dira

régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda.

b) En situaciones de copropiedad sobre una vivienda o edificio a rehabilitar, se tendrán en cuenta los ingresos ponderados de todos los copropietarios, que serán considerados como titulares de la actuación protegida de rehabilitación.

Esto no obstante, la Delegación Territorial correspondiente podrá no tener en cuenta este extremo cuando concurren especiales circunstancias que lo justifiquen, siempre que así sea solicitado por los interesados y acreditado quién vaya a ser el titular de la rehabilitación, en función de circunstancias tales como la utilización de las viviendas por uno de los copropietarios, tamaño de las cuotas de propiedad, u otras del mismo tenor que puedan apreciarse.

No obstante, cuando los titulares de los inmuebles sean Asociaciones sin ánimo de lucro o Administraciones Públicas, no se exigirá la acreditación de ingresos.

Artículo 4.— Ámbito de las actuaciones

1. Los titulares de una actuación protegida de rehabilitación podrán acceder a las medidas financieras establecidas en la presente norma cuando efectúen las intervenciones en un edificio cuyo destino principal sea el de vivienda, entendiéndose como tal aquél que, una vez efectuada la actuación de rehabilitación, disponga como mínimo de las dos terceras partes de su superficie útil, sin tener en cuenta la planta baja, destinada al uso de vivienda. Asimismo tendrán la misma consideración las intervenciones de rehabilitación que se realicen en las viviendas ubicadas en los citados edificios.

Este requisito no será exigible cuando las actuaciones de rehabilitación consistan en intervenciones en elementos privativos de las viviendas en edificios ya adecuados urbanística, estructural y constructivamente.

Excepcionalmente, los titulares de las actuaciones de rehabilitación en elementos comunes de edificios no destinados principalmente a vivienda podrán tener acceso a la financiación correspondiente a las actuaciones de rehabilitación en edificios destinados principalmente a vivienda, cuya determinación y alcance se efectuará preceptivamente a través de un Convenio específico entre la Sociedad Urbanística de Rehabilitación y el Gobierno Vasco. En las actuaciones de Rehabilitación Aislada, el Convenio será suscrito por los titulares de la rehabilitación y el Gobierno Vasco, pudiendo participar en el mismo el Ayuntamiento interesado.

2. La financiación cualificada se extenderá a la adecuación de la urbanización y acabado de los terrenos no edificados, que constituyan una unidad edificatoria con una construcción cuyo destino principal sea el de vivienda.

3. También se extenderá la financiación a los trasteos y garajes siempre que estén vinculados a las viviendas objeto de la actuación. Se entenderá que la vincu-

baldin eta Jabetza Erregistroan hala daudela egiaztatzen bada.

Erregistroan ez bada azaltzen lotuta dauden, finantzazioa garajeetara bakarrik hedatuko da eta betiere etxebizitzaren titularra garajearena dela, garajea etxebizitzaren inguruan dagoela eta garajearen erabilera bizikidetzako unitatekoren baten erabilerarako dela egiaztatuz gero

4.- Lokal komertzialek ere izango dute finantzazio kualifikaturik, eraikuntzaren elementu komunetako esku-hartzeak direnean eta horiek ordaintzeko dagokien kuota beren gain hartzen dutenean. Birgaitze Integratuko jarduketetan aipatutako lokalen elementu pribatiboetako esku-hartzeak ere finantzatuko dira, lokalen xedea ondoren adierazitakoren bat denean:

– Lehen mailako erkidego-ekipamendua: irakaskuntza, kultura, elkarte, laguntza, jolas, ikuskizun, osasun, erlijio, kirol, administrazio eta antzeko helburuen in-gurukoak.

– Artisautzako lantegiak.

– Lehen mailako premiako merkataritza-establezimenduak.

5. *artikulua*.– Babes daitekeen aurrekontua.

1.– Dagokion administrazio-erabakian berariaz adierazi behar da babes daitekeen birgaitzeko jarduketaren aurrekontua. Babes daitekeen aurrekontutzat joko da etxebizitza edo lokal komertzial bakoitzari dagokien jarduketaren kostu erreala. Kostu horrek barne hartuko ditu obrak egikaritzeko kontratuan adierazitako prezioa, laguntza teknikoko kontratuan adierazitako prezioa eta birgaitzeko jarduketa hori dela eta ordaindu beharreko eskubide, tasa eta gainerako prezio publikoak. Ez du barne hartuko dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Babes daitekeen aurrekontutzat jotzeko, jarduketaren kostuak ondorengo eragiketaren emaitza baino handiagoa izan behar du: indarrean dagoen oinarritzko prezioa bider 0,025 koefizientea eta birgaitu nahi den etxebizitzaren edo, hala badagokio, lokalaren azalera erabilgarri konputagarria.

2.– Babes daitekeen aurrekontua zehazterakoan ez dira barne hartuko eraikuntza-unitatea hirigintzara moldatzeari dagozkion partidak, horrek finantzazio publikoa izango baitu beti. Berorren kostuaren 100ko 50 arte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari egotzi ahal izango zaio eta gainerako zatia Birgaitzeko Hirigintza Sozietateari, edo horrelakorik ezean, dagokion udalari, Sailaren aldeko txostenaren bidez onartutako Birgaitze Plan Berezian ezarritakoari edo, hala badagokio, entitate publiko interesdunek sinatutako hitzarmenean dioenari jarraiki.

lación está suficientemente acreditada cuando así conste en el Registro de la Propiedad.

En los casos en los que no exista vinculación registral la financiación se extenderá únicamente a los garajes y siempre que se acredite que el titular de la vivienda lo es también del garaje, que el garaje está situado en las inmediaciones de la vivienda y que el destino es efectivamente el de garaje para uso propio de cualquiera de los miembros de la unidad convivencial.

4. Los locales comerciales participarán de la financiación cualificada, siempre que se trate de intervenciones en elementos comunes de la edificación y participen con la cuota correspondiente en el pago de las mismas. En actuaciones de Rehabilitación Integrada también se financiarán intervenciones en elementos privados de los citados locales, cuando el destino de los locales sea alguno de los siguientes:

– Equipamiento comunitario primario: Docente, cultural, asociativo, asistencial, recreativo, de espectáculos, sanitario, religioso, deportivo, administrativo y otros de finalidad análoga.

– Talleres de tipo artesanal.

– Establecimientos comerciales de primera necesidad.

Artículo 5.– Presupuesto protegible.

1.– En la resolución administrativa correspondiente deberá señalarse expresamente el presupuesto protegible de la actuación de rehabilitación, considerándose como tal el coste real de la actuación correspondiente a cada vivienda local comercial, o elementos comunes, que vendrá determinado además de por el precio señalado en el contrato de ejecución de las obras, por el precio señalado en el contrato de asistencia técnica y por los demás derechos, tasas y otros precios públicos satisfechos por razón de la citada actuación de rehabilitación, sin inclusión del Impuesto sobre el Valor Añadido que corresponda.

Para poder ser considerado como presupuesto protegible el coste de la actuación habrá de ser superior al resultado de multiplicar el precio básico vigente por el coeficiente 0,025, y por los m² útiles de superficie computable de la vivienda, o local en su caso, objeto de la rehabilitación.

2. Para la determinación del presupuesto protegible no se incluirán las partidas correspondientes a la adecuación urbanística de la unidad edificatoria, que siempre será de financiación pública, asignándose hasta el 50% de su coste a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y el resto a la Sociedad Urbanística de Rehabilitación, o en su defecto al Ayuntamiento correspondiente, conforme a lo que se establezca en el Plan Especial de Rehabilitación aprobado con informe favorable del Departamento, o en su caso, en el Convenio a suscribir por los Entes Públicos interesados.

3.- Babes daitekeen aurrekontuaren gehienezko muga honakoa izango da:

a) Etxebizitzak eta lokalak: oinarrizko prezioa, finantzazioa emateko unean indarrean dagoena, 0,80 koefizientearekin eta azalera konputagarriaren m.2 erabilgarriekin bidertzean lortutako emaitza. Birgaitzeko jarduketeta zaharberritze kontserbatzaileko esku-hartze bat denean, aipatutako koefizientea 0,15 handituko da eta zaharberritze zientifikoko esku-hartze bat denean 0,20 handituko da.

Birgaitzeko jarduketek eraikuntzen eta/edo etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara moldatzeko obrak hartzen dituztenean barne, etxebizitzaren azalera konputagarriaren m.2 erabilgarriak bakarrik hartuko dira kontuan eta horiei dagokien babes daitekeen aurrekontuaren gehienezko muga oinarrizko prezioa, laguntza emateko unean indarrean dagoena, 0,80 koefizientearekin eta azalera konputagarriaren m.2 erabilgarriekin bidertzean lortutakoa izango da.

b) Birgaitzeko diren etxebizitzetako erregistroan lotutako eranskinak: indarrean dagoen oinarrizko prezioa 0,15 koefizientearekin eta azalera konputagarriaren m.2 erabilgarriekin bidertzerakoan lortutako emaitza.

Adierazitako babes daitekeen aurrekontuaren gehienezko muga kalkulatzekoan lortutako emaitzarekin egikaritzearen guztizko kostua babestuko ez balitz, eragiketaren aurrekontua osatzen duten partiden multzoa proportzio berean murriztuko da.

4.- Aipatutako babes daitekeen aurrekontuaren gehienezko muga hori bost urtetan egongo da indarrean, birgaitzeko jarduketeta babestuen titularrek etxebizitza bererako 1996ko abuztuaren 14tik aurrera finantzaneurriak eskatzeko egindako lehen eskaera aurkezten denetik hasita. Azaldutakoari jarraiki, muga hori hartuko da aintzat bost urteko epe horretan egiten diren birgaitzeko jarduketeta guztietarako. Azalera erabilgarriko m.2ko oinarrizko prezio aplikagarria lehen eskaera hori aurkeztu zenean indarrean zegoena izango da.

5.- Babes daitekeen aurrekontuaren gehienezko muga zehazteko kontuan hartuko den gehienezko azalera etxebizitzako 90 m.2 erabilgarri izango da, nahiz eta, hala badagokio, azalera erreala hori baino handiagoa izan.

Etxebizitzetako lotutako garaje eta trastelekuen azalera kontuan izango da babes daitekeen aurrekontuaren gehienezko muga zehazteko. Gehienezko azalera 30 m.2 erabilgarri izango da.

Birgaitzeko jarduketeta babestuak lokal komertzialen ingurukoak direnean edo horietan eragiten dutenean gehienezko azalera konputagarria 90 m.2 izango da.

6.- Birgaitze Integratuko Eremuetan, ez da kontuan hartuko gehienezko azalera konputagarria, babes daitekeen aurrekontuaren gehienezko muga zehazteko.

3. El límite máximo del presupuesto protegible será:

a) Vivienda y locales: el resultado de multiplicar el precio básico, vigente en el momento de concesión de la financiación, por el coeficiente 0,85 y por los m² útiles de superficie computable. En aquellos casos en que la actuación de rehabilitación consista en una intervención de restauración conservadora el coeficiente anterior se incrementará en 0,15 y si es una intervención de restauración científica se incrementará en 0,20.

Cuando las actuaciones de rehabilitación conlleven obras de adecuación del acabado general de las edificaciones y/o de las viviendas a los principios de la buena construcción, sólo se tendrán en cuenta los m² útiles de superficie computable de la vivienda, y el presupuesto protegible correspondiente a las mismas tendrá como límite máximo el resultado de multiplicar el precio básico, vigente en el momento de concesión de las ayudas, por el coeficiente 0,80, y por los m² útiles de superficie computable.

b) Anejos vinculados a las viviendas objeto de la rehabilitación: el resultado de multiplicar el precio básico vigente por el coeficiente 0,15, y por los m² útiles de superficie computable.

Si como resultado del cálculo del límite máximo del presupuesto protegible señalado no se protegiera el coste total de la ejecución, el conjunto de las partidas que componen el presupuesto de la operación se verá reducido en la misma proporción.

4. El límite máximo del presupuesto protegible citado tendrá una vigencia de cinco años, a contar desde la fecha de presentación de la primera solicitud de medidas financieras que se presente por los titulares de actuaciones protegidas de rehabilitación para una misma vivienda a partir del 14 de agosto de 1996. Por lo expuesto dicho límite se computará para todas las actuaciones de rehabilitación que se realicen en dicho período de cinco años, tomándose como precio básico por m² de superficie útil aplicable el vigente en el momento de presentación de dicha primera solicitud.

5. La superficie máxima computable para la determinación del límite máximo del presupuesto protegible será, para cada vivienda, de 90 m² útiles con independencia de que, en su caso, la superficie real exceda de esa cifra.

La superficie de los garajes y trasteros vinculados a la vivienda será tenida en cuenta para la determinación del límite máximo del presupuesto protegible, computándose una superficie máxima total de 30 m² útiles.

Cuando las actuaciones protegidas de rehabilitación afecten o se refieran a locales comerciales, la superficie máxima computable será de 90 m².

6.- En Áreas de Rehabilitación Integrada, no se tendrá en cuenta la superficie máxima computable para la determinación del límite máximo del presupuesto pro-

Hala ere, dagokion Birgaitzeko Plan Berezian ezarritakoa bete beharko da.

6. artikulua.– Finantza-neurriak lortzeko baldintzak

1.– Nagusiki etxebizitza izatera bideratutako erakinak birgaitzeko jarduketan finantzazio kualifikatua etxebizitza bakar bat birgaitzeko lortuko dute jarduketaren titularrek. Aipatutako etxebizitza horrek bizileku ohiko eta iraunkor izan behar du edo bizileku ohiko edo iraunkor bihurtu behar du gehienez ere hiru hilabeteko epean, obren amaierako egiaztagiria ematen denetik hasita.

Ez zaie birgaitu beharreko etxebizitza bizileku ohiko eta iraunkor izateko baldintza eskatuko jabeei, birgaitzeko jarduketa babestuaren titular izango direnei, sustatzaile izan gabe etxebizitza alokairuan lagata dutenean edo, etxebizitza hutsik egonda ere –etxebizitza hutsa arautzen duen araudiak ezarritakoaren arabera–, beren gain hartzen dutenean jabetzan edo alokairuan lagatzeko konpromisoa, gehienez ere hiru hilabeteko epean, obren amaierako egiaztagiria ematen denetik hasita. Kasu horietan birgaitzeko jarduketa babestuaren titularrek finantzazio kualifikatuaren eta zuzeneko dirulaguntzen onuradun izateko aukera izango dute.

2.– Finantzazio kualifikatua ez da hedatuko 33.000 euro baino gehiagoko urteko diru-sarrera haztatuak dituzten birgaitzeko jarduketa babestuen titularretara, lokal komertzialen birgaitzea denean izan ezik. Kasu horretan ez da eskatuko diru-sarreraren baldintza betetzea.

